

KOSTUEN EGITURA

Solargi proiektua martxan jartzeko, honako hasierako inbertsio bat egin beharko genuke:

HASIERAKO INBERTSIOA		PREZIOA
BALIABIDE EZ MATERIALAK	LANTOKIKO/BILTEGIAREN LEHEN ALOKAIRUA	850€
	IDEIA PATENTATU	87€
	ENPRESA SORTZEKO GASTUAK	85€
LANTOKIKO ALTZARIAK	MAHAIK (Ontziratze mahaia, lan, bulegoa eta bileretako mahaia)	676€
	AULKIAK	6 x 18 = 108€
	APALATEGIAK	6 x 40 = 240€
	BIDALKETARAKO ETIKETA-INPRIMAGAILUA	58€
	PRODUKTUA EKOIZTEKO MAKINA ESPEZIALIZATUA	1800€
	LANTOKIKO APAINDURAK	200,5€
GAILUAK	SISTEMA TEKNOLOGIKOAK (Ordenagailuak, mugikorra eta inprimagailua)	489€
HASIERAKO INBERTSIOKO KOSTUAK		4.593,5€

Egingo ditugun inbertsio guztiak, hala nola, bulegoko materiala eta ekoizpen-makineria, gure funts, mailegu eta dirulaguntzen bitartez finantzatuko ditugu. Geratzen zaizkigun 14.906,5 euroak langileentzat gordeko dira enpresaren gainbehera ekonomikoa gertatuz gero.

Behin enpresa martxan jarri ondoren, materialetan egindako inbertsioak atzean utziko ditugu eta hileroko gastuetan bakarrik gastatuko dugu, kostu finkoetan eta aldakorretan banatzen ditugunak.

KOSTU FINKOAK	PREZIOA
WEBGUNEAREN DOMEINUA/HOSTING	93€/hilabetean
LANTOKIKO/BILTEGIAREN ALOKAIRUA	850€/hilabetean
BILTEGIAREN ASEGURUA	70€/hilabetean
WIFI ZERBITZUA	19€/hilabetean
LANGILE ETA PUBLIZITATE GASTUAK	15.000€/hilabetean
AMORTIZAZIOA	40€/hilabetean
FINANTZA-GASTUAK	110€/hilabetean
PATENTEA MANTENDU	2€/hilabetean
LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA	55€/hilabetean
KOSTU ALDAKORRAK	PREZIOA
ELEKTRIZITATEA	110€/hilabetean
URA	18€/hilabetean
GARRAIOA	350€/hilabetean
BULEGOKO MATERIALA	15€/hilabetean
KARTOI KAXAK (handiak zein txikiak)	205€/hilabetean
MUGIKORRENTZAKO ESTALKIA	1,35€/aleko (1500u)
EGUZKI PLAKAK	2€/aleko (1500u)
FUNTZIONAMENDU KOSTUAK	21.962€

Kostu finkoen barruan gure webgunearekin lotutako gastuak, Wi-Fi, alokairuak, edozein motatako tragedia saihesteko aseguruak, langile zein influencerren ordainsariak, finantza gastuak eta azkenik amortizazioak aurkituko genituzke. Kostu hauek finkoak direla esan dezakegu sozietate mugatuaren produkzioa gorabehera ez direlako aldatzen.

Bestalde, kostu aldakorrak ditugu, hau da enpresaren ekoizpenaren arabera aldatzen diren kostuak. Horien artean sartzen dira kasu honetan elektrizitatea, ura, garraioa... diren hornidurak. Eta, amaitzeko, gure produktua egiteko ezinbestekoak diren lehengaiekin eta bestelako hornikuntzekin egiten dugu topo.